

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### Tokiko Gobernu Batzordeak onartu dituen gaiak

*Bizikleten aparkalekuak, Hondartzetako zerbitzuak, Jolastokietako igogailua, Kontxako bidegorria, Laguntza Humanitaria*

#### **Bizikleten aparkalekuak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du bizikletentzako aparkaleku moduluak eskuratu eta bere tokian jartzea, hauek eta hirian lehendik daudenak mantentzea, eta aipatutako guztiak desmuntatzea eta kokaleku berri batean jartzea xede duen kontratazio espedientea. Kontratuaren hasierako eperako gehienezko aurrekontua 70.000 eurokoa da, eta gauzatzeko epea urtebetekoa.

#### **Hondartzetako zerbitzuak**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du honako zerbitzu hauek emateko edo kontratatzeke espedientea:

- **Ondarreta** hondartzako ekialdean instalatuko den **kiosko-taberna** baten ustiapena kudeatzeko zerbitzuen emakida. Hondartza-denboraldiko gutxieneko kanona 35.937 eurokoa da eta kontratuaren iraupena 2 hondartza-denboraldikoa (ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean).
- **Santa Klarako** ontziralekuaren ondoan dagoen **taberna** ustiatzeko zerbitzu emakida. Hondartza-denboraldiko gutxieneko kanona 18.815 eurokoa da, eta gauzatzeko epea 3 hondartza-denboraldikoa (ekainaren 15etik irailaren 30era).
- Donostiako hondartzetan denboraldiko abonatuaren arreta eta **eguzkitako, aulki eta etzaulkien** eguneko alokairuaren zerbitzua. Lizitazioaren aurrekontua 342.549 eurokoa da eta kontratuaren gauzatze-epea 4 urtekoa da, beste urtebetez luzagarria.
- Ondarreta, Kontxa eta Zurriola hondartzetan **4 zaintza-dorre eta botikin etxola** bat jartzeko hornidura eta instalazioa. Lizitazioaren aurrekontua 92.600 eurokoa da eta kontratuaren gauzatze-epea 8 astekoa.

#### **Jolastokietako igogailua**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Jolastokietan igogailu bertikala jartzeko proiektuaren obrak kontratatzeke espediente berria. Lizitazio-aurrekontua 558.000 eurokoa da, eta gauzatzeko epea 8 hilabetekoa.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### **Kontxako bidegorria**

Tokiko Gobernu Batzordeak Kontxa inguruan egiten ari diren lanak burutzeko obren kontratuaren lehenengo aldaketa onartu du, baita Kontxa pasealekuko bidegorriaren proiektuaren IV. fasea ere. Proiektu berri hori sartzeak % 26ko igoera suposatzen du aurrekontuan, eta hilabeteko igoera proiektua gauzatzeko epean.

### **Laguntza Humanitarioa**

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du 2022ko ekitaldiko aurrekontuko laguntzak ematea, zuzeneko dirulaguntza gisa, hainbat elkarteri:

- **Bakerako Lankidetzaren Batzarre elkartea - 16.990 €:** Dirulaguntzaren xedea da 2022ko apirilean hasi eta abenduan bukatuko den okupatuta dauden biztanle palestinarren eskubideen eta duintasunaren babes integraturako lotura estrategia lokalizatua, nazioarteko eskubide humanitarioaren (DIH) eta giza eskubideen nazioarteko eskubidearen (DIDH) arabera, eta COVID-19ren krisiaren aurrean, arreta berezia jarriz genero-ekitatean, haurren babesean eta Hondamendi-arriskua murriztea (RRD)(Brouqin, Zisjordania) proiektua finantzatzea.

- **UNICEF Euskal herriko batzordea – 16.990 €:** Dirulaguntzaren xedea da martxoan hasi eta 2022ko abendura arte luzatuko den “COVID-19 pandemiaren ondorioetatik Sirian haur ahulenak abestu oinarritzko hornidurarekin” proiektua finantzatzea.

- **Alboan Fundazioa – 16.947 €:** Dirulaguntzaren xedea da 2022ko urtarrilean hasi eta 2023ko urtarrila arte luzatuko den “Txadeko hegoaldeko kanpalekuetan muturreko kalteberatasun-egoeran dauden eta genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakume errefuxiatuenegoera hobetzea, laguntza psikosozialeko sistema komunitarioak indartuz” proiektua finantzatzea.

Donostia, 2022ko otsailaren 22a